


10 URTE · AÑOS · YEARS

Geoparkea   
Euskal Kostaldea - Costa Vasca



**JARDUERA MEMORIA  
2020**

## Aurkibidea

Sarrera .....	3
1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA .....	5
2. ARDATZA: GEOTURISMOA.....	8
3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA .....	14
4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA.....	17
5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA.....	23

## Sarrera

COVID-19ak sortutako krisiak turismo sektoreari bereziki eragin dio eta horren ondorioz, Geoparkearen aktibitate normala moteldu egin da. Asanblada Orokorrak otsailaren 18an onartu zuen Gestio Plana berehala desfasatua gelditu zen eta berregiteko premia agerian gelditu zen. Ekainaren 11an Zuzendaritza Batzordeak plan eguneraketa berretsi zuen.

Irteera gidatuen denboraldia, [webgunean argitaratu genuen bezala](#), martxoaren 13an eten egin behar izan zen eta horrek, kalte handia eragin dio Geoparkeari eta bisita geoturistikoen esleipenduna den enpresari. Ekainaren erdialdera berriz ekin genion aktibitateari nahiz eta uztaiera arte ez zen normaltasunez garatu. Udan zehar programa osotasunean garatu da. Bestalde, urriaren 24tik abenduaren 11ra ere etenda egon da programa eta 11tik urte bukaerara arte, berreskuratzeko aukera izan dugu.

Egoera horrek kalte handia eragin du Geoparkean eta bisita gidatu geoturistikoen programaren esleipendun den enpresan. Hala ere, agerian gelditu da Geoparkea eta orokorrean naturaguneak toki aproposak direla udako ihesaldiak egiteko. Geoparkea bisitariak hartzeko toki seguru eta erakargarri egitea da izan da gure helburua.

Aurten Geoparkeak 10 urte bete ditu Europako eta Munduko Sareko kide garenetik. Urte osoko ospakizunak bertan behera gelditu dira urrian hiru herrietan egin zen Itsas Ondarearen Jaialdira arte. Herritarrei zuzendutako ekimen bat izan zen, Europako Ondare Jardunaldien baitan antolatuta.

Hala ere, proiektu estrategiko batzuk normaltasunez egin dute aurrera. Prehistoriaren Bailara aurre proiektua idatzi da. Bestalde, Nautilus, ikerketa eta didaktika gelako obrak bukatu dira eta sakabanatuta zegoen amoniteen bilduma osoa eraman da bertara.

Ekoturismoa izan da gure garapenaren markoa. Beti izan bada ere, pandemia garaian zentzu gehiago hartu du. Ekoturismo klubarekin batera, Ekoturista naiz web gunearen bitartez merkaturatze ekimenak egin ditugu, [VITAMIN BOX produktua esaterako](#).

ICTEk, Turismoko Estatuko Idazkariak eskatuta, idatzi duen Naturaguneen protokoloaren erredakzioan parte hartu dugu OAPN (Organismo Autónomo de Parques Nacionales), Biosfera Erreserbak (MAB), eta Estatu mailako beste ordezkari batzuekin batera. Protokolo horrek, naturaguneetan Geoparkeek duten garrantzia erakusten du eta horien artean, Euskal Kostaldeko Geoparkeak duena.

Hezkuntzak Geoparkearen zutabe izaten jarraitu du. LH6rako Lasturko Karstaren inguruko hirugarren unitate didaktikoa egin bada ere, ezin izan da proba pilotua aurrera eraman ikastetxeek herritik ateratzeko izan dituzten zailtasunengatik.

Aurreikusita zeuden sentsibilizazio ekimen batzuk eta nazio arteko egunen ospakizunak bertan behera gelditu dira konfinamenduagatik. Geoparkean egin behar ziren Paleontologiako XXXVI Jardunaldiak ere bertan behera gelditu dira.

Komunikazioa eta sare sozialak estrategikotzat hartzen ditugu eta berebiziko garrantzia hartu dute egoera honetan. Alde batetik, [Atlantic Geoparks dokumentala](#) estreinatu dugu Geoparke Atlantikoak promozionatzeko eta bestetik, Danobaten laguntzarekin egindako ingurumenarekiko errespetua aldarrikatzen duen bideo bat ekoiztu dugu.

Mantxan dagoen beste proiektu bat komunitate Geoparkezaleena da. Diagnosi eta akzio plan bat idatzi dugu. Gainera, Geoparkearen marka hedatu, eta kide izatearen sentimendua sortzeko helburuarekin, zenbait lan-dinamika egin ditugu enpresa turistikoko eta industrialekin, ikastetxeekin eta udaletako teknikariek.

## 1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz honetan, luraren zientzien gizarteratzea, geodibertsitatea eta ondare natural eta kulturalaren kontserbazioari lotutako helburuei erantzuna ematen zaie.

Ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz horretan kokatzen da, halaber, ingurumen-hezkuntza koordinatuko eskaintza bat garatzeko helburua, Euskal Kostaldeko Geoparkea publiko desberdinentzako gune interesgarri bihurtzeko, bereziki hezkuntza-eremuan.

2020ko urrian ikerketarako diru laguntza deialdi bat kaleratu da, 2021 aurrekontuen kargu. Kalitate handiko lau proposamen jaso dira eta horietatik **“Giza- eta ingurugiro-faktoreen elkar-eraginak Euskal Kostako Geoparkeko paisaiaren formazioan”** izenburua duen proposamena aukeratu da. Lana 2021ean zehar burutuko da.

### 1.1. LURRAREN ZIENTZIEN (LZ) ALORREKO IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Nautilus, ikerketa eta didaktika gela**

Amonite fosilen bilduma biltzeko toki berria egin da Mutrikun. Orain arte hainbat tokitan sakabanatuta egon den bilduma bateratu da, eta amoniteen ikerketarako eta eskolen unitate didaktikoa burutzeko erabiliko den gela prestatu da.



- **Ikerketa bultzatu**

UPV/EHUrekin batera garatutako Geoparkearen paisaiaren bilakaeraren eboluzioa ikertzen duen proiektuaren azkenengo urtea izan da 2020a. *“Interpretación del paisaje del Geoparque de la Costa Vasca (Gipuzkoa) a través de los rasgos geológicos”* du izenburu eta azkenengo bi urteetan ibili gara proiektu honekin lanean. Ikerketak emaitza oso onak eman ditu Geoparkearen ezagutzan sakontzeko.

- **Zientzia publikazioak**

- *“Geoparques Globales de la UNESCO en España: razones para el éxito”* Luis Carcavilla Urquí y Asier Hilario Orús. Libro Geoparques de Brasil. Servicio Geológico de Brasil.
- *“Educationla activities in Fanghsan and Lesvos UGG”*. Revisión para Geoheritage.
- *“20 years of Spanish Geoparks: Analysis and future prospects”* Asier Hilario Orus & Luis Carcavilla Urquí. Geoheritage (2020) 12:87 18pp.
- *UNESCO Global Geoparks in the “World after”: a multiple Goals Action Plan proposal for future discusión and implementation*. Guy Martini, Asier Hilario et al . Episodes (2020)
- *Geodiversity, marketing, and photographic images: a focus on the Basque Coast UNESCO Global Geopark, Spain, as a geotouristic destination*. Suedio Meira...Asier Hilario. Geoheritage proposal 2020.
- *Bases Conceptuales y metodología del inventario Español de Lugares de Interés Geológico (IELIG)*. IGME 2020. Prólogo de Asier Hilario Orús

## 1.2. ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA HISTORIAURREA

- **Karst eta gizakiaren aurreproiektua (Historiaurrearen Bailara):** Paleomas enpresa izan da Aurre historiaren aurre proiektua idazteko esleipenduna. 5 interpretazio gune aurreikusten ditu: Deba, Praileaitz eta Ermittia eta toki guztiak batzen dituen ibilbidea. Proiektuak Geoparkea, eta konkretuki Deba, prehistorian erreferente bihurtzea bilatzen du.
- **Ermittiako indusketa arkeologikoa:** Interpretaziorako edukiak aberaste aldera, indusketa kanpaina bat egin da Ermittiako koban, Xabier Peñalver eta Josean Mujikaren zuzendaritzapean.

### 1.3. INGURUMEN HEZKUNTZA: GEOESKOLAK

Aurreko urtetako proiektuarekin jarraituz, aurten ere hezkuntzarako material berria sortu dugu hiru herrietako eskolek, ikasturte bakoitzeko kurrikulumarekin bat datorren gai eta material berdinak erabili dezaten. Honekin, 3 dira orain arte sortutako unitate didaktikoak.

- Lana bukatuta dago baina osasun krisia dela eta, ezin izan dugu bertako eskoletan proba pilotua egin. Egoerak lagatzen duen momentuan egingo dira.
- DBH 4 eta LH 1erako sortutako materialak ez dute espero zen errendimendua eman, egoerak baldintzatuta. Hala ere, eskola batzuk beraien herrietan egitea lortu dute, adibidez, Debako Luzaro eskolak.

Geoeskola Programaren inguruko argitalpen bat egin da: *Ikerketa eta partaidetza Euskal Kostaldeko Geoparkea deskubritzeko*. Alambique 102 2020. Josu Sanz, Gonzalo Torre, Asier Hilario et al.

Artikulu horri lotuta, Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, Natur Zientzien IV Topaketarako poster bat egin da. Azkenean topaketa bertan behera gelditu da.

## 2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira, beti ere, turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz.

### 2.1. PRODUKTUAK ETA BALIABIDEAK

Geoparkearen garapen turistikoa ekoturismoaren markoaren barruan egiten da. Basquetourrek Espainiako Ekoturismo Klubarekin sinatu zuen hitzarmenaren ondorioz, Geoparkea eta berarekin entitate kolaboratzaileak diren 19 turismo enpresa, EAEko lehenengo ekoturismo helmuga bilakatu dira.

2020. urtean turismo enpresa berri batzuk eta baita lehenetik sortuta zeuden beste batzuk, entitate laguntzaile izateko interesa azaldu dute, baita Ekoturismo Klubeko partaide izatekoa. Turespañak, Ekoturismoaren promozioan lagundu du eta zenbait feriatan egon gara Geoparkeko materialarekin, hala nola, Madbird eta FIO. Gainera, Berlin eta Londreseko OETen bitartez, [soyecoturista.com](http://soyecoturista.com) webgunearen bitartez eta marketin digitalaren bitartez, promozioa egin da.

Gasteizko Ekoturismo II Foroan parte hartu dugu eta Ekoturismo Sareko bileretan partaidetza aktiboa izan dugu baita ere.

### 2.2. IRTEERA GIDATUAK

Irteera gidatuen programa dibulgaziorako tresna garrantzitsuena da Geoparkearentzat. Programa honek bereizten gaitu, hain zuzen ere, beste natura eta kultura eskaintza turistiko batzuegatik.

2020ko programan, Aste Santutik azaroko zubira arte, bisitak egunero aurreikusten ziren. Neguko hilabeteetan bisitak asteburuetan mantendu nahi izan dira, azken urteetan egin ohi den bezala. 1.400 bisita aurreikusten ziren eta 16 bisita gidatu mota.





Martxoaren erdialdean COVID 19ak eragindako krisiaren ondorioz aktibitatea eten egin zen. Ekainaren erdialdean aktibitatea berreskuratu genuen, hasieran protokolo berriak probatzeko eta uztailetik aurrera normaltasunez jardun dugu. Urriaren bukaeratik abenduaren erdialdera arte ere, beste etenaldi bat egon da baina urte bukaerarako aktibitatea berreskuratu da.

Irteera gidatuen protokoloak zehazteko ICT (Kalitate Turistikoko Institutuak) proposatutako protokoloetan oinarritu gara, turismo gidari, turismo aktibo eta ekoturismoko protokoloak kontutan izanda. Naturagune babestuen protokoloa prestatzeko proposamenean aktiboki parte hartu dugu Estatuko Geoparkeen ordezkari gisa.

Segurtasun distantzia, derrigorrezko musukoa, materialaren banakako erabilera, materialaren eta ekipoen desinfekzioa izan dira, besteak beste, aktibitatea aurrera eramateko hartu diren neurriak. Eusko Jaurlaritzak agindutako aktibitate bakoitzeko edukierak errespetatu dira, ezberdinak oinezko eta itsasontzietako bisitetan.

Aurten erreserbak on line egitea gomendatu da, horren ondorioz, % 25a igo dira online erreserbak. Protokoloen baldintzak onartzeko on line sistema eguneratu da, hau da, bezeroak etorri aurretik jakin beharreko informazioa gehitu da. Mutriku eta Debako bulegoetan eta Txomin Agirre pantalanean datafonoak ipini dira, ahal den neurrian behintzat, eskudiruko ordainketa saihesteko.

2020. urtean 12.555 lagunek egin dituzte irteera gidatuak, 2019ko datuekin aldentuta % 31ko jaitsiera izan da. Kontutan izanda aktibitatea etenda egon dela urte erdia, ez dira datu txarrak. Uda nahiko ona izan da, uztailean % 5a igo zen bisitari kopurua eta abuztuan, berriz, % 15a jaitsi.

**2019-2020 irteera gidatueta partaidetza**

	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>%</b>
Urtarrila	41	65	% -37
Otsaila	297	235	%+26
Martxoa	656	33	%-95
Apirila	1.575	0	%-100
Maiatza	647	0	%-100
Ekaina	1.662	594	%-64
Uztaila	3.433	3.616	% +5
Abuztua	7.081	6.052	% -15
Iraila	1.581	1.544	% -2
Urria	869	320	% -63
Azaroa	166	0	% -100
Abendua	293	87	%-70
<b>TOTALA 2020</b>	<b>18.301</b>	<b>12.555</b>	<b>%-31</b>

Bertako turismoak igoera izan du, % 43a EAetik etorri da. Ez da apenas atzerritarrik egon eta Estatuko turisten kopurua mantendu egin da. Aurten Geoparkera etorri diren turisten % 51,5a Estatutik etorri da, Katalunia eta Madriletik, batez ere eta atzerritik

etorri diren bisitarien kopurua % 5,5a izan da. Edukia mugikorrean deskargatzeko pisten bitartez eskaini da, bisita ingelez, frantzesez eta alemanez jarraitu ahal izateko, ahal den neurrian audio giden mailegua sahiesteko.

Taldeen kudeaketa ere oso mugatuta egon da egoerak eraginda. Ildo horretan, Geoparkeak helburu berdina edukitzen jarraitzen du: Geoparkea ezagutzeko modu pertsonalizatu bat eskaintzea, motibazio berezia duten taldeak erakartzea eta barnealdea eta ezezagunagoa den Geoparkea promozionatzea.

Eskola talde eskaera guztiak Algorri Interpretazio Zentrorra bideratu dira eta Geoparkeak aisialdiko taldeak kudeatu ditu zuzenean. Ekaina, uztaila eta abuztuko datuak kontutan izanda, Algorriko Interpretazio Zentroan 2.000 bisitari egon dira. Iazko datuekin alderatzen baditugu, % 56ko jaitsiera egon da.

On line jasotzen diren asebetetze inkestean arabera, 865 erantzun jaso dira (urriaren 31ra) balorazioa 8.5ko izan da 10etik. Ondoen baloratzen diren zerbitzuak: jasotako tratua (9.1 puntu) eta erreserba prozesua (9.0 puntu) dira.

<b>Baloratutako puntuak</b>	<b>Balorazioa (1-10)</b>
Iritzi orokorra	8.5
Erreserba prozesua	9.0
Gidariaren azalpenak	8.9
Prezioa	7.4
Medioen balorazioa	7.8
Jasotako tratua	9.1

2019. urtearen bukaeran irteera gidatu geoturistikoen zerbitzuaren esleipena egin zen bi urteetarako eta bi urtez luzatzeko aukerarekin. Alarma egoerak aginduta kontratua eten egin zen eta kalte ordaina ordaindu zitzaion esleipendun enpresari, 8/2020 ED 34 artikulua arabera.

### **2.3. PROMOZIOA ETA MERKATURATZEA**

Aurtengo promozio turistikoa oso kaltetua izan da osasun krisi egoera dela eta. Basquetour eta Gipuzkoa Turismorekin lankidetzak mantentzen da eta Geoparkeak bere aldetik ere promoziorako ekimen batzuk egin ditu.

FITUR izan da parte hartu dugun azoka bakarra. Urtero bezala, Geoparkea bi stand ezberdinetan egon da: Euskadiko Costa Vascako standean eta Europako Geoparke Sareko kide bezala, UNESCOren Munduko Geoparkeen standean. Las Loraseko Geoparkea izan da aurten Geoparkeen aldizkaria egitearen arduraduna eta Castilla eta Leonen standean aurkeztu da. Bestalde, Turespañako standean, Euskal Kostaldeko Geoparkeko ordezkariak *“Geoparques, destinos innovadores de turismo sostenible”* hitzaldia eman zuten.



Geoparkeko promoziorako materiala eguneratuta izan dugu. Urte hasieran bidalketa handi bat egin zen Euskadiko turismo bulego nagusietara eta harrezkero ez da material asko atera.

1. 2020 urteko irteera gidatuen programa eusk/gazt
2. Geoparkea irudi orokorra eusk/gazt

Uztaila eta abuztuan zehar gertuko bisitariei zuzenduta promozio berezi bat ipini da abian. Geoparkearen entitate kolaboratzaileek urte osoan zehar bisita gidatuen prezioan % 5eko deskontua dute beraien bezeroei eskaintzeko. Aurten, bizi izan dugun egoera ikusita, deskontua % 20ra igo dugu. Horretaz gain, Urola Kosta eta Debabarrena eskualdeetako ostatu guztiei eskaini zaie deskontu hau eskuratzeko aukera. 23 ostaturik parte hartu dute beraien bezeroak erakartzeko teknika gisa.

Geoparkea Ekoturismo Klubaren kide da 2019tik Estatuko beste 16 naturagune babestuekin batera eta hainbat ekimen egin ditu jarduera ekoturistikoak ezagutzera eman eta promozionatzeko. [Vitaminbox](#) paketea diseinatu da, asteburu baterako ostatu eta esperientziak eskainiz, urte osoan zehar erreserbatzeko aukerarekin. Geoparkeak, udara eta udazkena bitartean egiteko, 4 esperientzia pakete proposatzen

ditu. Honako hauek barne hartzen ditu pakete horrek: 3 gaueko ostatua eta 3 edo 4 bisita gidatu, bakarka edo taldean egiteko, tokiko gida batekin.

**VITAMINBOX**  
 10 Experiencias ecoturísticas de fin de semana por España  
 3 días & 2 noches | a partir de 2 personas

Vitaminas para tu bienestar +  
 Vitaminas para pequeños emprendedores de ecoturismo

sey ecoturista

Destino: Geoparque de la Costa Vasca, País Vasco.



**Escapadas 2020**  
 redescubre tu naturaleza

sey ecoturista  
 CLUB ECOTURISMO EN ESPAÑA

Club Ecoturismo en España

51 escapadas  
 6 meses  
 16 espacios naturales protegidos



Agentzien bitartez merkaturatzea ere beste urtetan bezala egin da. Gipuzkoako turismo bulegoan irteera gidatuen programa osoa eskaintzen da, Equinoccioaren bitartez gestionatua. Euskadi Turismo web-orrialdean ere urtero bezala TOP esperientzia gara, beste batzuetan Norte Sur Incomingen bitartez saldu da baina aurten [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) web-orrialdera bideratu da jendea.



### 3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

#### 3.1. INTERPRETAZIORAKO AZPIEGITURAK

Sasiolako begiratokia bukatu da. Iaz behatokiaren plataforma ipini zen eta aurten panela ipini da eduki natural eta arkeologikoarekin. Barnealdea indartzeko ekimen bat da hau, eskaintza eta erakargarritasuna dibertsifikatzeko beste aukera bat.



#### 3.2. INGURUNE NATURALA BABESTEVA ETA KONTSERBATZEA

Atal honetako ekimen asko bertan behera gelditu dira, bereziki, udaberrirako aurre ikusita zeudenak. Hala ere, batzuk aurrera ateratzeko gai izan gara.

- **Herriguneetan zuhaitzak ezagutzeko ibilbideak** Deban, Mutrikun eta Zumaian. deskonfinamendu sasoiak banaka edo familian egiteko aukera.
- **BIOTOP topaketa**, herritarren zientziari lotutako ekimena, udaberrian atzeratu egin zen baina udazkenean bertan behera gelditu behar izan zen.

- **Hegaztiak behatzeko irteera otsailaren 9an Zumaian**



- **Nazioarteko Eguna.** GGNak Geoparkeen helburuekin lotura gehien dutenen zenbait nazioarteko egun ospatzea gomendatzen du. Mendien Nazioarteko eguna abenduaren 11an izan zen eta Zumaian eta Mutriku bi hitzaldi egin ziren, biak partaidetza politarekin.



- Zumaian, Itziarren eta Deban **Oinatzen Tailerra** egin zen 12 urtetik beherako umei zuzenduta eta COVID-19ko protokoloak aintzat hartuta.



- Ornitho herritarren zientzia sarearekin bat egin du Geoparkeak, lorategi eta parkeetako hegaztien neguko zentsuarekin. Partaideentzat formakuntza saio bat egin da datuak plataformara igo aurretik.



- Surfrider Fundazioarekin batera, itsas hondakinen inguruan on line hitzaldi bat egin zen abenduaren 9an, GFA Ingurumen Diputatuak parte hartu zuen ekitaldian.
- Mater itsasontzia, Zero Zabor kanpainaren barruan Mutrikuko portuan egon zen eta kontzientziazio ekintza batzuk egin ziren herritarrei zuzenduta.



## 4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA

2020an lan taldea mantentzea izan da helburua, bai lanpostuak eta bai kanpo asistentziak. Zeregin batzuk beste batzuk baino kaltetuagoak izan dira egoeragatik baina egokitzapen eta planifikazio lan handia egin da eta horri aurre egiteko kontratuak mantendu egin dira.

Lantaldea: Geograpeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraitu du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkaritza-lanak gauzatzen ere. Aurten ez dira aurrez aurreko topaketarik egon, denak izan dira birtualak.
- **Irteera gidatuen dinamizatzaileak**, programa udaberrian eten zen arren, COVID-19aren protokoloen eguneratzeak lan handia suposatu du, egutegi berrantolaketa, etab. Udako aktibitatea aurreko urteetan baino handiagoa izan da nahiz eta bisita kopurua antzerako mantendu den. Esfortzua handiagoa izan da, bai ekonomikoa eta bai pertsonala.

Kanpo-laguntza

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraituko du, bai EGS eta MGS ordezkaritzaekin. IUGSen (Unión Internacional de Geociencias) Ondare Geologiko Batzordeko zuzendaritza hartu du eta ondorioz, Foroko koordinazioa ez berrestea erabaki da. Kargu berriak nazioarteko presentzia handiagoa ematen dio Geoparkeari eta garrantzi handiagoko zereginak beteko ditu.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratu da komunikazioaren alorreko aholkularitzaz, prentsa-oharrak sortzeaz, webgunea eguneratzeaz, boletín digitalaz, eta abarrez. Aktibitatea beste urteetan bezala mantendu da.
- **Community manager** bat (sare sozialen kudeatzailea) arduratu da @Geoparkea markaren estrategiaz Facebooken, Twitterren eta Instagramen. Aktibitatea beste urte batzutan bezala mantendu da.
- **Ingurumen eta jasangarritasunaren koordinazioa** bereziki naturagune babestuetan eta ingurumen heziketan egin diren ekintzen koordinazioa izan da. Lan ildo honek COVID 19aren krisiaren eragin handia jasan duen arren, batez ere kanpora begirako ekintzetan, lan handia egon da gestio aldetik eta horregatik kolaborazioa maila berdinean mantendu da.

- Kontabilitate eta lege aholkularitza eguneroko gestio lanetan mantendu da baina alarma egoerako dekretuak 34. artikuluan jasotzen zuen kontratuen etenak aholkularitza honen premia areagotu du.
- Interreg europako proiektuak eskatuta FLC lehen mailako auditore bat kontratatu da Idazkaritzara bidaltzeko kontuak auditatzeko. Europako proiektua azaroan bukatu da, nahiz eta, bukaerako likidazioa urte hasierara arte luzatuko den.
- Geoparkezaleen akzio plana idatzi da. Plana bukatuta dago nahiz eta dinamika batzuk ezin izan diren aurrera eraman egoerak aginduta.

Urtero bezala, Geoparkeko taldeak Geoparkea eta bere gestioa ezagutzera datozen kanpo ordezkariak hartzen ditu. Aurten ez dira ugariak izan baina Volcanes de Calatrava (Ciudad Real) Geoparke hautagaitzako ordezkariak bisitatu dute Euskal Kostaldeko Geoparkea.



### Interreg Geoparke Atlantiarrak

Proiektua 2020ko azaroan bukatu da. Ezin izan dira aurre ikusita zeuden bisitak eta bilerak egin, Galesen Forest Ffawer Geoparkean egindakoa izan da salbuespena. Proiektu bukaerako ekitaldia ere birtuala izan da.



Europako Geoturismo Ibilbide Atlantikoan lanean jarraitzeko aukerak ireki dira baina orain bai proiektuaren kideen borondatearen menpe dago, ez baitago kanpo finantzaketarik.



Kaleratu den azkenengo materiala Europako Geoturismo ibilbide Atlantikoaren APPa da. Euskal kostaldeko Geoparkeak edukiak igo ditu baina APPa ez dago bukatuta oraindik.

#### **4.1. HARREMANAK EUROPAKO GEOPARKEEN SAREAREKIN (EGS) ETA UNESCOREKIN.**

Atal horren helburua nazioarte mailan Geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea da. Aurten sareko ohiko topaketak ez dira egin, horren ordez, bilera birtualak egin dira.

Urteroko ekarpenak egin dira, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena egin dugu, besteak beste:

- EGN Newsletter
- GGN Newsletter
- EGN Magazine

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere bidali dira:

- Sei hilabeteko txostena
- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

CNEG (Espainiako Geoparkeen Batzordea) bilera bat egitera deituta zegoen martxorako. Organo honetan, Leire Barriuso Geoparkeko ordezkari gisa, Asier Hilario Foroko koordinatzaile gisa, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendariak hartu behar zuten parte. Azkenengo momentuan, bilera bertan bera gelditu zen eta bere ordez, urrian, bilera birtual bat egin genuen.



Estatuko Geoparkeen Foro mailan logotipo bat diseinatu da erabilera bikoitzarekin: alde batetik alor instituzionalean erabiltzeko eta bestetik helmuga turistikoa gisa erabiltzeko.

**GEOPARQUES**  
ESPAÑA

**GEOPARQUES**  
FORO

EHUS UNESCO Sareko ordezkari gisa, 2. aldizkariaren erredakzio taldean sartu gara. Ale berri horrek UNESCO lekuetan pandemiak izan duen eraginari aurre egiteko jarrera izango da landuko den gaia.

#### 4.2. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

Komunikazioak bere biziko garrantzia du krisi egoera honetan. Atal hau mantendu ez ezik, indartu ere egin da gestio plan berriari dagokionez.

##### ON-LINE

- Urteroko eguneraketak egin dira erreserba sisteman
- Web gunean atal berriak ireki eta idatzi dira, zientzia eta hezkuntza eta georutak, besteak beste.
- 2 newsletter.
- Webgunean 32 albiste kaleratu dira.
- Sare sozialetan gure presentzia indartzen jarraitzen dugu, eta erabiltzen ditugun hiru sareetako jarraitzaile kopurua modu organikoan igo da:
  - Twitter: % 12ko igoera
  - Instagram: % 45eko igoera
  - Facebook: % 5,3ko igoera

##### OFF-LINE

- 19 prentsa ohar.
- 27 irriati elkarrizketa
- 1 prentsaurreko
- 9 agerraldi telebistan:
  - *Berben Lapikoa*, EITB
  - *Udak dakarrena*, EITB

- EITB Albistekak (euskera eta gazteleraz)
- *Biba zuek!* EITB
- *Mi familia en la mochila*, RTVE
- TF1 Frantziako telebista
- *Senderos del Mundo*, RTVE, bigarren programa Geoparkean
- *Hoy por hoy Donostia* Teledonostin
- “Ahoz aho” de ETB1, hamabostaldiko kolaborazioa

Baleike Zumaiaiko herri aldizkarian hileroko ekarpena zientziaren txokoan kaleratzeko:

- *Biodibertsitatea, gizakiaren morroi?*
- *Prehistoriaren bailara: Geoparkearen altxor ezkutua*
- *Zulotik zulora, hor barrukoa zein da?*
- *Ozeano bat, 11 lurralde: Geoparke atlantiarren historia harrigarria*
- *Alien, zortziarren pasaiaria... eta gehiago*
- *Marea gora*

Artikulo hauek <https://baleike.eus/bereziak/izarren-hautsa> edizio digitalean topatu daitezke. **Debaberri** aldizkarian ere kolaborazio bat egin da 10. Urteurrenaren inguruan.



## KOMUNIKAZIO KANPAINAK

- Irrati, prentsa eta on line medioetan egiteko kanpaina bat kontratatu da. Deskonfinamenduaren azken fasean egin zen kanpaina, Gipuzkoa mailan gertuko merkatu bati zuzenduta lehenengo, eta gero, Erkidego guztira zabaldu zen.
- [“Ez utzi arrastorik”](#) bideoa Danobat Groupen laguntzarekin inguruarekiko jarrera arduratsuak txalotzeko egina.
- [Europa Atlantikoko Geoturismo ibilbidea](#) erakusten duen dokumentala, natura, kultura eta geologia batzen dituen 12 helmuga zoragarri osatutako ibilbidea erakusten da.

## HITZALDI ETA KONFERENTZIAK

- Cuarentena con Geociencias, Colombiako Unibertsitate Nazioanlak eta Colombiako Geología Elkarteak Antolatuta:
  - “Patrimonio geológico y geo-conservación” apirilean
  - “ Retos del turismo sostenible en los Geoparques” ekainean
- Geoheritage, Geoconservation and Geoparks. Interreg Atlhantic Geoparks on line ikastaroa ekainean.
- Geoparks and Geoheritage. International cooperation. Participación America’s Geoheritage. US National Academies of Sciences, Engineering and medicine.

## 5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

### 5.1. LEHEN SEKTOREA SUSTATZEA

- **Geogourmet saskiak** saltzen dira lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile bereberekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan daude dira salgai prezio berean.
  - Txakolina: Sagarmíña eta Flysch
  - Gazta: Goienetxe
  - Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

### 5.2. GEOPARKEZALEAK

- **Bultzada bat eman zaio Geoparkezaleak komunitateari.** Enpresa bat kontratatu da Geoparkezaleekin lan dinamikak martxan ipintzeko eta Akzio Plan bat idazteko. Planean tipologia ezberdinentzat akzio ezberdinak definitzen dira, besteak beste, enpresa industrial eta turistikoentzat edota eskolentzat. Helburua Geoparkea herritarrengan errotzea da eta Geoparkearen aktibitate ekonomikoari lotzea da.
- **Webinar bat antolatu da enpresa industrialei zuzenduta** Geoparkea ezagutzera emateko eta jarduera ekonomikoen eta kokatuta gauden lurraldearen arteko harremana estutzeko.

◀ Albisteetara itzuli

## Enpresak eta inguruko natura eremua

2020-11-19

Euskal Kostaldeko Geoparkeak, Debegesa eta Urola Kostako Udal Elkartearekin lankidetzan, Deban, Mutrikun eta Zumaian dauden enpresei zuzendutako online saio bat antolatu du Geoparkea ezagutzera emateko eta jarduera ekonomikoen eta kokatuta gauden lurraldearen arteko harremana estutzeko.



- **10. Urteurrena ospatzeko ekintzak.** Urte osoan zehar aurreikusita zeuden ekintzak bertan behera gelditu dira baina ekitaldi nagusi bezala Itsas Ondarearen Jaialdia egin da hiru herrietan urriko hiru asteburutan zehar. Herritarrei zuzendutako ekitaldia izan da, hiru herriak lotzen dituen itsas ondarean oinarrituta. Ekitaldi horrekin ondare kulturala balioan jartzeko aurrerapauso bat eman du Geoparkeak.





Urriaren 4an egin zen jaialdia Zumaian, 10ean Mutrikun eta 17an Deban. Beduola Elkarateak berritzen diharduen Hiru Anai batelaren lanak zuzenean ikusteko aukera egon zen, arrantzarako tresna zaharrak, batelaren inguruko panelak, amugileen erakusketa eta marinel korapiloen tailerra egin ziren, besteak beste. Arratsaldetan ontzi tradizionaletan errekan gora nabigatzeko aukera egon zen.

Irudi bateratu bat emateko zenbait material diseinatu zen photocalla, gallardeteak, kartelak etab.

### 5.3. GEOPARKEEN EUROPAKO ASTEA

Herritarrei zuzendutako ekimenak antolatzen dira Geoparkeen Astean. Aurten, berriz, ezin izan dira ekintzak normaltasunez egin baina hurrengo hauek egin ditugu horien orde:

- **10 urte 10 ekimen.** 10. urteurrena ospatzeko, 10 urtetan egin diren 10 ekitaldi gogora ekarri dira 10 egunetan zehar sare sozialetan.
- **Respira Geoparques kanpaina** bultzatu da Estatuko beste 15 geoparkeekin. Geoparkeak, deskonfinamendu garaian eta udan, bisitatzeko leku aproposa direla aldarrikatzen zuen kanpainak.
- **Herrietako zuhaitzen ibilbidea.** Bakarka edo familian egiteko ibilbide birtualak dira hauek. Norberak bere kabuz egiteko materiala prestatu zen: mapa birtuala eta zuhaitz bakoitzaren informazioa eta kokalekua.




## Respira Geoparques

Usted está aquí [Index](#) > [Inicio](#) > [El Foro Español de Geoparques](#) > [Respira Geoparques](#)

### #RespiraGeoparques

Con esta intención ponemos a tu disposición esta página en la que encontrarás las mejores ideas para una visita de tres días a cada uno de nuestros geoparques.



Respira Maestrazgo

Respira Cabo de Gata

Respira Sierras Subbéticas

Respira Sobrarbe-Pirineos